AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko azaroren 21a.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 1996.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-5923

AGINDUA, 1996ko azaroaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila (HBLEM) izeneko ziurtagiria sortzen duena.

Irakaslanerako hizkuntz eskakizunak ezartzen dituen 47/1993 Dekretuan bi maila ezarri ziren irakasleentzat. Bada, ordea, hezkuntzan lan egiten duen langile-multzo bat eskakizun horien definizioarekin gaizki lotzen dena: Hezkuntza Bereziko Laguntzaileak hain zuzen ere. Bestalde, Administrazio orokorreko hizkuntz eskakizunak ere ez dira ongi egokitzen langile hauen zereginetara.

Hezkuntza Bereziko lan-kontratudunen zenbait euskal plaza betetzeko zegoen beharrak bultzata, 1995-96 ikasturtean egin dira jadanik lanpostu hauen mailari dagozkion azterketa batzuk. Egoera hori, beraz, arautu beharra dago ahalik lasterren.

Horregatik, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Agindu honen xedea Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila (HBLEM) ziurtatuko duen agiria sortzea da.

*2. atala.*– Ziurtagiri hau Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxeetan Hezkuntza Bereziko laguntzaile direnei zuzendua dago. Era berean, Hezkuntza Bereziko irakasle ez diren zenbait langile-kategoriak ere egiaztatu ahal izango du ziurtagiri hau. Lan-kategoria horiek aldian-aldian zehaztuko dira deialdi bakoitzean. Nolanahi ere, HBLEM ziurtagiria ez dagokie Hezkuntza Bereziko gizarte-laguntzaileei eta fisioterapeutei, lankategoria hauei irakasleen HE2 eskatuko baitzaie euskal lanpostuetan. Are gutxiago eskola-munduko irakasleei: euskara edo euskaraz irakasteko behar den trebetasun-mailarik, idatzizko atalean bereziki, ez du HBLEMek ziurtatzen.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-5923

ORDEN de 14 de noviembre de 1996, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se crea el certificado HBLEM (Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila) para los auxiliares de Educación Especial.

El Decreto 47/1993 establece dos perfiles lingüísticos para el profesorado. No obstante, existe un colectivo de trabajadores de la enseñanza cuyas necesidades de euskera tienen difícil encaje en la definición de estos dos perfiles: se trata de los auxiliares de Educación Especial. Por otra parte, los perfiles lingüísticos correspondientes a la Administración general tampoco se adaptan exactamente a las labores de estos trabajadores.

La necesidad de cubrir plazas de contratados laborales de Educación Especial ha motivado ya la realización, durante el curso 1995-96, de exámenes que se ajustan razonablemente a las características de estos puestos. Por lo tanto, la situación actual requiere una regulación de los mismos a la mayor brevedad.

Por todo ello,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– El objeto de la presente Orden es la creación del certificado HBLEM (Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila) de los Auxiliares de Educación Especial.

*Artículo 2.*– Este certificado está dirigido a los auxiliares de Educación Especial de los centros de enseñanza de la Comunidad Autónoma Vasca. Asimismo, otras categorías laborales no-docentes de Educación Especial podrán acreditar este nivel. Dichas categorías se especificarán en cada convocatoria. Con todo, el certificado HBLEM no corresponde a los asistentes sociales y a los fisioterapeutas, categorías a las que, en las plazas a euskera, se asigna la acreditación del perfil PL2 del profesorado. Tampoco corresponde el nivel HBLEM a los profesores de la enseñanza, puesto que no garantiza la competencia idiomática precisa para impartir la enseñanza del o en euskera, principalmente en lo que se refiere a las destrezas escritas.

*3. atala.*– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak HBLEM egiaztatzeko azterketen deia egingo du aldian-aldian. Azterketa horiek Irakasleen Hizkuntz Eskakizunen deialdiekin batera deitu ahal izango dira.

*4. atala.*– Irakasleen Hizkuntz Eskakizunen Azterketa Batzordea bera izango da, oinarriz, ziurtagiri honen epaimahaia. Era berean, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak osagarrizko aztertzaileak izendatu ahal izango ditu zeregin honetarako.

*5. atala.*– HBLEM egiaztatzen duten langileek gai izan behar dute beren lana euskaraz oztoporik gabe egiteko. Bestela esanda, jatorrizko hiztunaren gaitasuna edo hurbilekoa izango dute mintzamenean, eta idatziz hiztun alfabetatu arrunt bati eska dakizkiokeen oinarri-oinarrizko trebetasunak menperatuko dituzte.

*6. atala.*– HBLEM azterketaren probek eta puntuazioek Irakasleen Hizkuntz Eskakizunen eskema berari jarraituko diote, baina hizkuntza-maila egokituta. Horrela, deialdi itxiei dagokienez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1995eko apirilaren 10eko Aginduak (maiatzaren 11ko EHAA) ezarritakoari jarraituko zaio. Bestelako deialdietan Irakasleen Hizkuntz Eskakizunen deialdi irekia izango da eredu, momentuz, Hezkuntza sailburuordearen 1996ko apirilaren 24ko Erabakia (maiatzaren 10eko EHAA) aplikatuko delarik edo, aurrerantzean, azken deialdi irekiak ezartzen duena. Idatzizko zatian ahozkoaren ulermena ere neurtuko da beste trebetasunen artean.

*7. atala.*– Probaren bat gainditu bai baina denak gainditzen ez badira, egindakoa ez da kontuan hartuko aurrerago egin daitezkeen hizkuntz eskakizunen egiaztapen-prozesuetan.

*8. atala.*– Lortutako emaitzarekin konforme ez badago, azterketari orok dagokion idatzizko erreklamazioa aurkezteko eskubidea dauka, aldian aldiko deialdiak zehazten duen baldintzetan.

*9. atala.*– Azterketa-material guztiak, alegia idatzizko erantzunak, grabazioak eta partezko zein guztizko emaitzak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gordeko ditu, emaitzak argitara eman eta handik urtebeteko epean gutxienez.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

*Lehena.*– Jadanik 1996 urtean HBLEM azterketa egin eta gainditu dutenei eskakizun-maila hau aitortuko zaie. Horretarako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak pertsona horien zerrenda argitaratuko du berandu baino lehen.

*Bigarrena.*– HBLEM ziurtatu behar duten pertsonen artean, ondoko bi multzo hauei hori eta horrenbestez eskakizun-maila hau aitortzen zaie:

a) EGA edo baliokidea dutenei, edo etorkizunean lortuko dutenei;

*Artículo 3.*– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación convocará periódicamente los exámenes para la obtención del certificado HBLEM. Los exámenes podrán realizarse al mismo tiempo que los de Perfiles Lingüísticos del profesorado.

*Artículo 4.*– El tribunal examinador será básicamente el mismo que el de los Perfiles Lingüísticos del profesorado. Asimismo, la Dirección de Renovación Pedagógica podrá nombrar examinadores complementarios para esta labor.

*Artículo 5.*– El personal que acredite el nivel HBLEM habrá de ser capaz de desempeñar su trabajo sin especiales dificultades en euskera. Es decir, su competencia oral será la nativa o próxima a ésta, y acreditará las habilidades escritas básicas propias de un hablante alfabetizado.

*Artículo 6.*– Las pruebas y puntuaciones de los exámenes de HBLEM seguirán el esquema de los exámenes de perfil del profesorado, adecuándose al nivel correspondiente de exigencia lingüística. Así, en las convocatorias restringidas se seguirá lo establecido en la Orden de 10 de abril de 1995 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 11 de mayo). Las restantes convocatorias tomarán como modelo la convocatoria libre, aplicándose por el momento lo establecido en la Resolución de 24 de abril de 1996 del Viceconsejero de Educación (BOPV de 10 de mayo) y, en lo sucesivo, lo que al efecto establezca la disposición vigente reguladora de la última convocatoria libre. La comprensión oral será evaluada al igual que las restantes habilidades lingüísticas.

*Artículo 7.*– La superación de alguna de las pruebas, pero no de todas ellas, no será tenida en consideración para futuros procesos de acreditación de perfiles.

*Artículo 8.*– En caso de disconformidad con el resultado obtenido en cualquiera de las pruebas, todo aspirante tendrá derecho a formular por escrito la reclamación correspondiente en las condiciones que se establezcan en cada convocatoria.

*Artículo 9.*– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación guardará al menos durante un año, a partir de la publicación de los resultados, todos los materiales de examen de cada prueba: respuestas escritas, grabaciones en cinta, resultados parciales y globales.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.*– Se les reconocerá el nivel HBLEM a aquellos que han superado el correspondiente examen durante el año 1996, para lo cual el Departamento de Educación, Universidades e Investigación publicará próximamente la relación nominal.

*Segunda.*– Se otorga el certificado HBLEM a aquellas personas que, debiendo acreditar dicho nivel, se encuentren en uno de los siguientes dos supuestos:

a) estar en posesión del EGA o equivalentes, o lograrlo en el futuro.

b) Langile finkoak izanik, orain arte euskal plazetan lanean jardun dutenei. Aldi baterako lehen xedapenean aipatzen den zerrendarekin batera argitaratuko dira hauen izen-abizenak ere.

AZKEN XEDAPENA

Hezkuntza Sailordetzari ahalmena ematen zaio agindu honetan ezarritakoa garatzeko neurriak har ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko azaroaren 14a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

b) Siendo personal fijo, han desempeñado hasta la fecha su labor en plazas a euskera. La relación nominal de estos se publicará junto con la lista nominal citada en la Disposición Transitoria Primera.

DISPOSICIÓN FINAL

Se autoriza a la Viceconsejería de Educación para que adopte las medidas encaminadas a desarrollar lo dispuesto en la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de noviembre de 1996.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OSASUN SAILA
***(Osakidetza)***

**Zk-5924**

1083/1996 ERABAKIA, azaroaren 4koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Arantzazuko Ama ospitaleko (Gipuzkoako Osasun Barrutia) Kudeaketa Ekonomikorako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.

Zuzendaritza nagusi honek Arantzazuko Ama ospitaleko (Gipuzkoako Osasun Barrutia) Kudeaketa Ekonomikorako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdi publikoa egitea erabaki du, uztailaren 23ko 194/1996 Dekretuaren bigarren aldibaterako xedapenean; uztailaren 23ko 439/1991 Dekretuaren bigarren gehigarrizko xedapenean; apirilaren 3ko 95/1990 Dekretuan; eta uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuan agindutakoaren arabera. Hona hemen

OINARRIAK

*Lehenengoa.*– Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorreko nahiz bere erakunde autonomoetako funtzionarioek eta Osasun instituzioei atxikitako langileek eskatu ahal izango dute Arantzazuko Ama ospitaleko (Gipuzkoako Osasun Barrutia) Kudeaketa Ekonomikorako zuzendariaren lanpostua, zeinetarako deialdia erabaki honen bitartez egiten baita. Hona hemen bete beharreko baldintzak:

1.– Espainiako edo Europako Batasuneko kideren bateko nazionalitatea izatea; edota, Europako Batasunekoa izan gabe, harekin egindako nazioarteko hitzarmenen bitartez —Espainiako Estatuak ere izenpetuak— langileen joan-etorrirako askatasuna duten estatuetako

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD
***(Servicio vasco de salud)***

**N°-5924**

RESOLUCIÓN 1083/1996, de 4 de noviembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se anuncia convocatoria publica para la provisión del puesto de trabajo de Director/a de Gestión Económica del Hospital de Aranzazu, Área Sanitaria de Gipuzkoa.

Encontrándose vacante el puesto de trabajo de Director/a de Gestión Económica del Hospital de Aranzazu, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Transitoria Segunda del Decreto 194/1996, de 23 de julio, en la Disposición Adicional Segunda del Decreto 439/1991 de 23 de julio, en el Decreto 95/1990, de 3 de abril, y en el Decreto 369/1995 de 11 de julio, esta Dirección General acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión con arreglo a las siguientes

BASES

*Primera.*– El puesto de trabajo de Director/a de Gestión Económica del Hospital de Aranzazu que se convoca mediante la presente Resolución, podrá ser solicitado por el personal adscrito a Instituciones Sanitarias, así como por el personal Funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, y por aquel otro personal siempre que reúna los siguientes requisitos:

1.– Ser español u ostentar la nacionalidad de alguno de los demás Estados miembros de la Unidad Europea, o de aquellos Estados a los que, en virtud de Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y suscritos por el Estado Español, sea de aplicación la libre